




EAEko ekonomiaren termometroa 101,1ean kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa




Otsailean, EAEko ekonomiaren termometroa 101,1 puntutan kokatu zen. Egia da oraindik ez dela hazkunde sendoko eremutik irten, baina hazkunde moteleko eremutik oso hurbil dago jadanik. Moteltze horren arrazoi nagusia inbertsioaren hazkunderan izandako apaltzea da.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Txikizkako merkataritzak gorantz jarraitzen du EAEn

Txikizkako merkataritza EAEn

Urte bakoitzeko urtarrila. Indizea



Txikizkako merkataritzako salmentek %5,9ko gorakadarekin hasi zuten urtea Euskadin, aurreko urteko urtarrilarekin alderatuta. 2021. urtearen erdialdetik izandako igoerarik handiena da hori eta, harekin batera, txikizkako merkataritzako enpleguaren %2,1eko hazkundera lortu zen hileko horretan.


Iturria: INE.



IPIa %2,0 gutxitu zen urtarrilean urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea

Urte bakoitzeko urtarrila




Iturria: Eustat.

2023ko urtarrilean, EAeko industria produkzioa 2022ko hil berean erregistratutakoa baino %2,0 txikiagoa izan zen, Eustatek berriki argitaratu dituen azken datuen arabera. Jaitsiera bitarteko ondasunen (-%0,9) eta, batez ere, energiaren ekoizpenaren (-%17,9) beherakada nabarmenak eragin zuen.

Enpresen sorrerak gora egin du urte hasieran

Euskadin eratutako sozietateak

Urte bakoitzeko urtarrila



Iturria: INE.

Aurtengo lehen hilabetean, EAEn 255 enpresa eratu ziren, hau da, aurreko urteko hil berean baino %2,4 gehiago. Hori horrela izanda, lau hilabete jarraian lortu dira balio positiboak. Ordaindutako kapitala 12 milioi eurotik gorakoa izan zen.